



LAMIAKO JAIK 2020 "BIRTUALAK"

LAMIAKO JAIK 2020

MAIATZAK 29, BARIKUA

16:30 **TXUPINAZOA** eta "SAN MAXIMO 2020" jaien hasiera.

17:30 **BALKOI-LEHIAKETA.**

Jai-batzordeko kideak Langileria kalean zehar ibiliko dira, eta dekoratutako balkoien argazkiak egingo dizute. Balkoirik edo terrazarik ez dutenek, edo Lamiakon ez bizi direnek, argazki bat bidaliz (balkoiriki ez izatekotan, dekoratutako leiho batena) parte hartu ahal izango dute batzordearen helbide elektronikora edo konpartitu gure Instagram edo Facebook aplikazioetan.

23:00 **LAMIAKO MASKARADAREN EMANALDIA**, zuzenean Telebilbaon.

MAIATZAK 30, ZAPATUA

10:30 **TXUPINAZOA.**

11:00 **PINTURA-LEHIAKETA.**

Adin denetakoek hartu ahal izango dute parte, margolanak batzordearen helbide elektronikora bidaliz edo konpartitu gure Instagram edo Facebook aplikazioetan. Irudiaren beheko aldean "Lamiako jaiak 2020" esaldiak agertu behar du, marrazkiak zuenak direla segurtatzeko. Gainera, jaiakaz zerikusia duen zeozer izan behar dute.

Lanak entregatzeko ordutegia 11:30etik 13:00etara izango da.

13:00 **GASTRONOMIA-LEHIAKETA.**

Platera norberak aukeratuko du. Egiteko zailtasuna eta aurkezpena hartuko dira kontuan. Ohar garrantzitsua: batzordearen posta elektronikora argazki bat bidali beharko da edo konpartitu gure Instagram edo Facebook aplikazioetan, platerari eutsiz, gerritik gorakoa.

Entregatzeko ordutegia 14:00etatik 15:30era izango da.

18:30 **MOZORRO-LEHIAKETA.**

Ez da gai zehatzik egongo, mozorroaren originaltasuna hartuko da kontuan.

Argazkiak bidaltzeko ordutegia 19:00etatik 20:30era izango da.

21:00 **DISKO-FESTA: GALKER.**

Zuzenean etxeetatik. Batzordeak link bat bidaliko du edozein gailu digitaletatik ikusi ahal izateko. Dantzarazteaz gain, Galkerrekin erronkak ipiniko dizkigu bere emanaldian.



LAMIAKO JAIK 2020 "BIRTUALAK"

MAIATZAK 31. DOMEKA

11:00 TXUPINAZOA.

11:30 ARGAZKI-LEHIAKETA.

Argazkiek Lamiakon egindakoak izan beharko dute (zaharrak edo oraingoak). Originalenak edo epaimahaia gehien hunkitzen duenak irabaziko du (jai-batzordeko kideek osatuko dute epaimahaia oraingoan). Parte-hartzaile bakoitzak gehienez argazki bi bidali ahal izango ditu batzordearen posta elektronikora edo konpartitu gure Instagram edo Facebook aplikazioetan.

Lanak entregatzeko ordutegia 11:30etik 13:30era izango da.

17:30 PLAYBACK-LEHIAKETA.

Bideoak gehiegizko pisua eduki dezakeenez, Drivera igo beharko da, eta batzordeagaz partekatu edo konpartitu gure Instagram edo Facebook aplikazioetan. Ondo ahoskatzea, dantza eta originaltasuna hartuko dira kontuan, eta aurreko lehiaketetan bezala, norberak gura duen kantua aukeratu ahal izango du.

Entregatzeko ordutegia 18:00etatik 19:30era izango da.

20:30 JAIEN AMAIERAKO TRAKA HANDIA.

Irtten balkoi eta leihoetara traka entzuteko.

LEHIAKETETARAKO ARGAZKI ETA BIDEO DENAK HONAKO HELBIDERA BIDALI BEHAR DIRA: lamiakojaiak@hotmail.es EDO KONPARTITU GURE INSTAGRAM (Lamiako_jaiak) EDO FACEBOOK (Lamiako Jaiak) APLIKAZIOETAN.

BATZORDEAK ASTE-AKABUAN ZEHAR ERABAKIKO DU IRABAZLEAK NORTZUK DIREN, ETA HAIEN IZENAK LAMIAKO JAIK-EN SARE SOZIALEN BITARTEZ JAKINARAZIKO DIRA.

ANIMA ZAITEZTE ETXETIK PARTE HARTZERA!

"COVID19" EZIN IZANGO DU GURE JAIKIN

¡GORA LAMIAKO!

HERRI BAT GARA GU.